



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 29a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako lan-istripuen tasari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Nafarroako 2014-2020 Osasun Planeko Zainketa Aringarrien eta Minaren Zainketaren Estrategiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroarako 2020rako dauden hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspenen gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, etxebizitzak alokatzeko Poltsaren programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, 2019ko urriaren 15ean Landa Eremuko Emakumearen Eguna ospatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua egun kudeatzen ari den proiektu estrategikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan egiturazko orduak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako herrietan helduentzako euskara-eskolak ematea baimentze aldera ezarritako prozedurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriaren testu bateginarekin foru lege proiektu bat aurkezteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako lan-istripuen tasari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako lan-istripuen tasari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19- PES-00124 idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez "informazioa eskatzen baitu Nafarroako lan-istripuen tasari buruz". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuaren txostena erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

NAFARROAKO LAN-ISTRIPUEN JARRAIPEN-TXOSTENA, NAVARRA SUMAREN GALDERA PARLAMENTARIOARI ERANTZUNEZ**1. LAN-ISTRIPUEN INTZIDENTZIA****Lan-istripuen joerak Nafarroan**


Navarra Suma taldeak egindako galdera parlamentarioan, informazioa eskatzen da lan-istripuek 2015etik izan duten bilakaerari buruz eta Nafarroako egungo egoerari buruz. Hala ere, Nafarroan laneko ezbeharren tasaren bilakaera ulertzeko, aldi zabalago bati erreparatu behar zaio, Espainiako Estatuan fenomeno hori zikloaren arabera-koa baita⁽¹⁾.

Hurrengo irudian ⁽²⁾ ikusten da 2012. urtetik aurrera gora egiten hasi zela lan-istripuen (LI) tasa, lan-baldintzetan aldaketa garrantzitsuak eragin dituzten bi gertakariarekin bat etorritik: ziklo ekonomikoan hedapen-fase baten hasiera eta azken lan-erreformaren onespena⁽³⁾.


(1) Fernández-Muñiz B. Montes-Peón JM, Vázquez-Ordás CJ. Occupational accidents and the economic cycle in Spain 1994–2014. *Safety Science* 106 (2018) 273–284

(2) NOPLOI. Nafarroako laneko ezbeharren tasa. 2018. urtea. Lan Osasunaren Zerbitzua. Laneko Osasuna Zaintzeko Atala <https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/5B3EF3B4-4AE6-4F8F-A7C9-FCB2C94ABB7E/448419/InformeSiniestralidadLaboral2018.pdf>


(3) 3/2012 Errege Lege Dekretua, otsailaren 10ekoa, Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoa. <https://www.boe.es/boe/dias/2012/02/11/pdfs/BOE-A-2012-2076.pdf>



Fuente: I.S.P.L.N. Sección de Vigilancia de la Salud en el Trabajo.




Fuente: I.S.P.L.N. Sección de Vigilancia de la Salud en el Trabajo.



Fuente: I.S.P.L.N. Sección de Vigilancia de la Salud en el Trabajo.

Nafarroako joerak, jarduera-sektorearen arabera:




Espainiako Estatuarekiko alderaketa

Lau sektore ekonomikoek istripu-tasa desberdinak dituzte, altuagoak eraikuntzan eta industrian; beraz, indize globala behar bezala interpretatzeko, beharrezkoa da sektore ekonomikoaren arabera estandarizatzea edo doitzea.

Lan-istripuen tasa gordina eta doituia, autonomia erkidegoen arabera, 2018an⁽²⁾.

**ACCIDENTES DE TRABAJO CON BAJA EN JORNADA DE TRABAJO.
TASAS AJUSTADAS DE SINIESTRALIDAD LABORAL POR COMUNIDAD AUTÓNOMA - 2018**




Fuente: Avance enero-diciembre 2018 de Accidentes de Trabajo del Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social
Fuente: I.S.P.L.N. Sección de Vigilancia de la Salud en el Trabajo.

Doikuntza hori 2018an⁽²⁾ egin da lehenengo aldiz. 2018ko urtarriletik abendura bitarteko aldiaren aurrerapenean Espainiako tasa 33,26koa zen arren, azken txostenean, Ministerioaren 2018ko lan-estatistikaren arabera, 34,08an geratu zen.

**ACCIDENTES DE TRABAJO CON BAJA EN JORNADA DE TRABAJO.
TASAS AJUSTADAS DE SINIESTRALIDAD LABORAL NAVARRA - ESPAÑA 2009-2018**

	Tasa ajustada Navarra	Tasa España
2009	37,65	42,63
2010	34,57	40,00
2011	32,13	36,34
2012	24,98	29,49
2013	25,33	30,09
2014	27,38	31,11
2015	28,34	32,52
2016	30,70	33,64
2017	31,12	34,09
2018	32,83	33,26



Tasas ajustadas :

((II agricultura * Población estándar agricultura) + (II industria * Población estándar industria) + (II construcción * Población estándar construcción) + (II servicios * Población estándar servicios)) / Total Población Estándar

Fuente de Datos:

AT Navarra. Informe de Siniestralidad Laboral del año posterior (excepto 2018).

Afiliados Navarra: Datos facilitados por la Subdirección General de Estadística y Análisis Sociolaboral del Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social

AT España e II España 2009-2017: Anuario de Estadísticas del Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social

AT España e II España 2018: Avance enero-diciembre 2018 de Estadística de Accidentes de Trabajo del Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social

Egungo egoera. Nafarroa, 2019ko urtarrila-iraila.

2019. urtean izandako istripuen kopuruak gora egin du 2018. urtekoekin alderatuta.

**ACCIDENTES DE TRABAJO CON BAJA EN JORNADA DE TRABAJO
SEGÚN GRAVEDAD Y SECTORES ECONÓMICOS
NAVARRA - Acumulado Enero - Septiembre 2019 / 2018**

SECTORES ECONÓMICOS	GRADO DE LESIÓN						TOTALES	
	LEVES		GRAVES		MORTALES		2019	2018
	2019	2018	2019	2018	2019	2018		
Agricultura	368	365	3	3	1		372	368
Industria	3450	2877	26	20	4	2	3480	2899
Construcción	903	559	17	11		2	920	572
Servicios	3152	2779	25	14	5	3	3182	2796
Total AT. CB en JT	7873	6580	71	48	10	7	7954	6635
A.T. "In Itinere"	762	707	7	6	3	3	772	716
Total AT. Con Baja	8635	7287	78	54	13	10	8726	7351

Fuente: I.S.P.L.N. Sección de Vigilancia de la Salud en el Trabajo.

2019an, berrikuntza garrantzitsu bat gertatu zen: Gizarte Segurantzak lan-kontingentziei (lan-istripua eta lanbide-gaixotasuna) ematen dien estaldura espezifiko nahitaezkoa izanen da, oro har, langile autonomoen araubide berezian (LAAB) lan egiten duten langileen kasuan. Aldaketa horren ondorioz, estatu mailan 2,5 milioi langile

baino gehiago sartu dira, eta, beraz, guztizko datuak ezin dira guztiz alderatu aurreko urteetakoekin. Gauza bera gertatzen da Nafarroan.

2019ko urtarriletik irailera metatutako aldiari 44.911 langile gehiago daude (% 19), eta lan-istripuen intzidentzia txikia da sektore guztietan, industrian izan ezik.

**ACCIDENTES DE TRABAJO CON BAJA EN JORNADA DE TRABAJO.
ÍNDICES DE INCIDENCIA ACUMULADOS DE ACCIDENTES TOTALES POR SECTORES ECONÓMICOS
NAVARRA - Acumulado Enero - Septiembre 2019 / 2018**

SECTORES ECONÓMICOS	Enero - Septiembre 2019			Enero - Septiembre 2018		
	Accidentes	n.º Trabajadores	Índice de Incidencia por mil trabajadores	Accidentes	n.º Trabajadores	Índice de Incidencia por mil trabajadores
Agricultura	372	10.698	34,8	368	9.837	37,4
Industria	3.480	70.247	49,5	2.899	64.981	44,6
Construcción	920	17.004	54,1	572	9.929	57,6
Servicios	3.182	184.500	17,2	2.796	153.232	18,2
No consta		594			151	
TOTAL	7.954	283.041	28,1	6.635	238.130	27,9

Fuente Población Asalariada: Datos cedidos por S.G. de Estadística y Análisis Sociolaboral del Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social.

Fuente: I.S.P.L.N. Sección de Vigilancia de la Salud en el Trabajo.

Hala ere, soldatapeko langileak soilik alderatuz gero, lan autonomoa kontuan hartu gabe, biztanleria 8.458 pertsonatan hazi dela ikus daiteke (% 3,7).

Aldi berean, lan-istripuen intzidentziak gora egin du sektore guztietan, nekazaritzan izan ezik.

SECTORES ECONÓMICOS	Enero-Septiembre 2019			Enero-Septiembre 2018		
	Asalariados			Asalariados		
	AT CB. JT	Población Asalariada	Índice de Incidencia * 1000 tr.	AT CB. JT	Población Asalariada	Índice de Incidencia * 1000 tr.
Agricultura	320	6864	46,6	318	6649	47,8
Industria	3404	66721	51,0	2869	64389	44,6
Construcción	728	10027	72,6	547	9186	59,5
Servicios	2951	153312	19,2	2732	148685	18,4
N.C.		594			151	
TOTAL	7403	237518	31,2	6466	229060	28,2

Fuente Población: Datos cedidos por S.G. de Estadística y Análisis Sociolaboral del Ministerio de Trabajo

Fuente: I.S.P.L.N. Sección de Vigilancia de la Salud en el Trabajo.


Hurrengo taulan, urriaren 31ra arte jasotako lan-istripuen parteen zenbaki absolutuak ikus daitezke, aurreko bi urteetako antzeko aldiekin konparatuta, eta arestian aipatutakoa ikus daiteke.

Hala ere, urteko tasak eduki arte itxaron behar da aldaketaren garrantzia baloratzeko.

Periodo:	Leves	Graves	Mortales	Total JT	In Itinere	TOTAL
01/1/2017 - 31/10/2017	6674	34	5	6713	671	7384
01/1/2018 - 31/10/2018	7402	51	7	7460	803	8263
01/1/2019 - 31/10/2019	8824	79	11	8914	884	9798

Autonomia erkidegoen arteko alderaketa 2019ko urtarrila-abuztua aldia.

Tasa gordinak alderatuz gero, Nafarroak 3. tokoa betetzen du lanaldian baja dakarten lan-istripuen guztizko kopuruari dagokienez⁽⁴⁾, eta tasa hori % 11,2 handitu da 2018koarekin alderatuta.



(4) http://www.mitramiss.gob.es/estadisticas/eat/eat19_08/ATR_08_2019_Resumen.pdf

Nafarroaren posizioa hileko batez besteko intzidentzian, soldatapeko sektoreen eta autonomoen arabera (2019ko urtarrila-abuztua)⁽⁵⁾.

	Agrario	Industria	Construcción	Servicios
	419,4	429,1	528,1	180,6
Andalucía	444,5	457,8	650,9	208,1
Aragón	315,8	395,0	453,9	168,6
Asturias	448,6	492,5	479,4	179,2
Balears (Illes)	467,0	553,9	720,5	299,9
Canarias	511,2	385,4	587,7	198,4
Cantabria	404,6	393,9	446,0	179,4
Castilla-La Mancha	400,2	465,4	582,5	214,5
Castilla y León	337,0	446,8	474,7	166,1
Cataluña	312,4	406,8	464,8	171,0
Comunitat Valenciana	558,3	325,1	494,2	176,6
Extremadura	509,5	469,0	532,3	172,3
Galicia	341,5	489,4	427,5	149,4
Madrid	370,4	361,7	514,1	161,4
Murcia	404,4	429,7	471,2	167,0
Navarra	(9º) 389,5	(3º) 540,9	(3º) 583,4	(5º) 186,7
País Vasco	492,4	553,0	466,4	164,6
Rioja (La)	317,8	481,4	554,7	187,4
Ceuta			518,0	144,2
Melilla			508,4	176,4

Nafarroa 9. tokian dago nekazaritza-sektoreko lan-istripuen intzidentzia-tasari dagokionez, 3. postuan Balear Uharteen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren atzetik Industrian, 3. postuan eraikuntzan Kanarietako Balear Uharteen eta Autonomia Erkidegoaren atzetik eta 5. postuan zerbitzuen sektorean.

(5) <http://www.mitramiss.gob.es/estadisticas/eat/welcome.htm>

NAFARROAKO GOBERNUAK, ETA ZEHAZKI NOPLOIK, PREBENTZIO-SISTEMAN GARATU BEHARREKO EDO GARATZEN ARI DEN JARDUKETAK:

Bai 2017-2020 aldiko ekintza-planaren esparruan, bai istripu-tasari aurre egiteko talka-neurrien esparruan, 2019ko azken hiruhileko honetan honako jarduketa hauek garatzen ari dira —eta aurreikusita dago 2020an zehar garatzea—:

Osasun Departamentua eta Garapen Ekonomikorako Departamentua,

1. Batera lan egitea ukitutako eragileekin:

- Enpresaburuak: CEN (Nafarroako Enpresaburuaren Konfederazioa), ANEL (Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarte), CEAT (Autonomoen Espainiako Konfederazioa) (CNSLren barruan daude), ANECOP (Herri-lanak egiten dituzten enpresen Nafarroako Elkarte), ACP (Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkarte), ATA (Langile Autonomoen Elkarte).

- Arkitektoen, aparejadoreen eta ingeniariaren elkargoak.

- Prebentzioko Teknikarien Sindikatua (estatu mailakoa).

- Prebentzio Zerbitzuetako Enpresen Elkarte (AESPLA, ASPA).

- Sindikatuak

2. Prebentzioaren urteko eguna planifikatzeko proposamena, jardunbide hobekak aintzatetsiz azpisektoreen arabera.

3. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren dirulaguntzak:

a. 2019an ekipoak eta lantokiak egokitzeko inbertsioak.

b. Enpresa- eta gizarte-eragileen egiturak indartzea.

c. Prebentzioaren arloko Lurraldeko Ordezkarria (PLO).

NOPLOren eskutik:

1. Prebentzioa enpresen kudeaketan integratzea: 2019ko maiatzean/ekainean, NOPLOik “Funtsezko pieza zara” kanpaina hasi zuen, 2020. urte honetan sustatuko den prebentzioaren kudeaketa propio eta integratuarekiko enpresa-konpro-

misoa areagotzeko. Horretarako, honako hau planteatu zen:

a. Enpresaburuarekin topaketak egitea, jarduera ekonomikoen arabera banatuta, honako hauetarako:

i. Enpresaburuak sentsibilizatzea beren enpresako plantillaren segurtasunean eta osasunean daukaten erantzukizuna dela eta.

ii. Nafarroako enpresetan IPEPen (Leading Indicators) erabilera bultzatzea (argitaratze-fasean dago galdetegia baliozkotzeari buruzko azterlana).

b. Arriskuen kudeaketa-zikloaren erabilera zabaltzea (etengabeko hobekuntza), honako hauen bidez:

i. Arriskuak identifikatzeko eta ezabatzeko/kontrolatzeko tresnak eta prozedurak prestatzea eta zabaltzea.

ii. Arriskuen kudeaketako zikloa sartzeari prebentzio-agenteen prestakuntza.

c. 6.000 horma-egutegi eta 6.000 mahai-egutegi banatzea prebentziozko kultura duten leloekin. “FUNTSEZKO PIEZA ZARA” 2020ko egutegia

2. Langileen parte-hartzea indartzea:

NOPLOIn prebentzioko ordezkariari prestakuntza ematen jarraitzea eta prestakuntza hori hobetzea.

Martxan jarri zenetik 450 ordezkari eman zaie prestakuntza dagoeneko. 2019ko hirugarren hiruhileko honetan, “Laneko arriskuei” buruzko ikastaroaren beste zortzi edizio egitea aurreikusi da, laneko arriskuen prebentziorako ordezkariari zuzenduta. 30 orduko 5 saio, 2019ko iraila eta Abendua bitartean. 2020rako ikastaroak planifikatzen ari dira.

3. NOPLOren aholkularitza- eta kontrol-zeregi- na indartzea, istripuak prebenitzeko lehentasuna duten Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazional-eko (EJSN) enpresetara bisitak egiteko programaren bidez. Honako tresna hauek erabili dira:

a. Bisita-kopurua handitzea: 2018ko kanpaina. 691; 2019ko kanpaina: 812 aurreikusita zeuden.

b. Prebentzio Zerbitzuek erabiltzen dituzten metodologietan laguntzea, bereziki kanpokoetan, Nafarroako enpresen % 90 baino gehiago hartzen baitituzte. Banakako topaketa kanpoko prebentzio zerbitzuekin, aholkularitzarako.

(6) Lan-osasunean funtsezko pieza zara

(7) Laneko arriskuen kudeaketarako etengabeko zikloa

4. Bide Segurtasuneko Programa Ministerioaren “Ikusiko zaituzte” kanpaina Nafarroarako egokitzea . Sentsibilizazio-jardunaldiak eginen dira motorzaleekin: azaroaren 15ean eta 19an eginen dira banaketak.

5. Estatu mailako “Tu vida sin vuelcos” kanpaina, nekazaritzaren sektoreari zuzendua.

6. Arrisku Kimikoa:

a. Prestakuntza jarduketak:

i. Jardunaldia: Amiantodun Materialak identifikatzea. Abenduak 11

ii. Tailerra: Agente kimikoen neurketa. EN 689 araua Abenduak 12

b. Kantzerigenoekiko esposizioan dauden pertsonen erregistroa. Finantzaketa jaso zain

7. Esku-hartze pilotua istripu-tasa handienak dituzten enpresetan

2019an jada hasi gara istripu-tasa handiko enpresa batean esku hartzen, eta esku-hartze hori zabaltzea planteatzen da, esku hartzen duten prebentzio-agente guztien ahaleginak koordinatuz: NOPLOI, Prebentzio Zerbitzua, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskatzailetza, enpresako zuzendaritza, prebentzioko ordezkariak, enpresako mutua.

8. Istripuen arrazoiak ikertzearen arloko prestakuntza orokorreko programari hasiera ematea, enpresetako tarteko aginte-koadroentzat.

9. 2017-2020 ekintza-plana ebaluatzea eta 2021-2024 aldirako plan berri bat egitea, metodologia parte-hartzailearekin. Aukera egokia izanen da eragile ekonomikoek zein laneko eragileek eta gizarteko gainerakoek laneko istripuen aurkako ekarpen estrategikoak egiteko.

10. Gizarte Segurantzaren prebentzio-jarduketekin (mutuak) koordinazio handiagoa esploratzea.

Galdera, Nafarroako 2014-2020 Osasun Planeko Zainketa Aringarrien eta Minaren Zainketaren Estrategiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako 2014-2020 Osasun Planeko Zainketa Aringarrien eta Minaren Zainketaren Estrategiari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19/ PES-00125 idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez “Osasun Planeko Zainketa Aringarrien eta Minaren Zainketaren Estrategiari buruz”. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Lehenbizi, esan behar da bizitzaren azken etapen arreta eta zaintza lehenetasuna izanen direla legegintzaldi honetan zuzentzeko ohorea dudana Departamentuarentzat. Gizarte zintzo, zuzen eta errukior batek bere adinekoek eta bere bizitzaren amaieran dauden pertsonen arduratu behar du. Esparru horretan, departamentuaren barruan zein departamentuen artean lan egiten dugu, bai eta sektoreen artean ere, gaian inplikaturik dauden sektore eta eragileekin.

Osasun Departamentua zainketa aringarriei buruzko lan-ildo hau zehazten ari da, eta sei hilabeteren buruan horren berri ematea espero dugu.

Zehazki, Zainketa Aringarrien Komitea eratuko dugu, eta gure erkidegoko eredu aringarria behar bezala planifikatuko dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Nafarroarako 2020rako dauden hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspenen gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Jesús Valdemoros Erro andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroarako 2020rako dauden hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspenen gainekoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak erantzuteko galdera bat egin du —2359 sarreraz-zenbakiarekin erregistratu zen, 2019ko urriaren 16an (10-19/PES-00126)—, jakin nahi baitu ea Nafarroako Gobernuak asmorik baduen 2020rako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspen berriak egiteko. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nahiz eta nazioartean ziurgabetasunak egon, erakunde askok 2019ko eta 2020ko hazkunde nazionalaren itxaropenak hainbat hamarren jais-tea eragin dutenak, oraingoz arrazoi objektiborik ez dago Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspen ekonomikoak berrikustea justifikatzen duenik.

Justifikazio hori hiru argudio nagusitan oinarritzen da, jarraian garatuko ditugunak:

- Lehendabizikoa da Kontabilitate Nazionalako serieak direla-eta Estatistika Institutu Nazionalak irailean egindako berrikuspen estatistikoak 2019ko Espainiako proiektzio ekonomikoen beherapena eragin duela; gorabehera horrek ez du eraginik Nafarroari buruzkoetan, NASTAT-Nafarroako Estatistika Institutuak estimatzen baititu.

Kontu nazionalak ekonomiaren neurketa egokia egin behar dutenez, komenigarria da aldizka eguneratzea haien konpilaziorako erabilitako esta-

tistika-iturriak eta zenbatespen-metodoak. Behar horri erantzuteko, Estatistikako Institutu Nazionala nazioko eta eskualdeetako kontuetako eragiketa guztien serie berrikusiak zabaltzen hasi da. Eragiketa horien zenbatespenaren erantzulea Espainiako Urteko Kontabilitate Nazionala da. Zeregin horren ondorioz, eta hemen interesatzen zaigunari begiratuta, EINek beherantz berrikusi zuen azken hiru urteetako Espainiako BPGaren hazkundearen datua.

Berrikuspen horri egokitzen lehenengoetako bat Espainiako Bankua izan zen. Irailean bertan, ekainean jaulkitako proiektzio makroekonomikoak eguneratu zituen, eta, igorritako oharrean jasotzen denez, 2019ko aurreikuspenaren murrizketaren erdia arrazoi estatistiko hauei egotzen die: “2019ko BPGaren hazkunde-proiektzioa beherantz berrikusi da, lau hamarren, Kontabilitate Nazionalako datuen berrikuspenaren eta joan den udaberriaz geroztik izandako bilakaera ekonomiko txarrenaren eta hark epe laburreko aurreikuspenetan izandako ondorioen tamaina bereko ekarpenekin, gutxi gorabehera”.

Era berean, BBVAren azterlanen zerbitzuak ere lau hamarren murriztu zuen Espainiako ekonomiarako aurreikuspena aurten, % 2,3tik % 1,9ra, eta aitortu zuen murrizketaren zatirik handiena Estatistikako Institutu Nazionalaren Kontabilitate Nazionalaren beherantzko berrikuspenari egotzi behar zitzaioela.

Galderak 2020ko aurreikuspenean jartzen du arreta, nahiz eta Espainiako ekonomiarako 2019rako aurreikusitako hazkunde-tasaren murrizketa 2020koa bezain garrantzitsua izan den, edo kasu batzuetan handiagoa. Aipatutako BBVAk eta Espainiako Bankuak ez ezik, beste erakunde batzuek ere Espainiarako proiektzio ekonomikoak murriztu zituzten udaren bueltan. 1. taulan, ospe handiko erakundeek uda aurretik eta ondoren Espainiako hazkudeari buruz zituzten aurreikuspenak alderatzen dira, eta kopuruetatik ondorioztatzen da hazkunde-proiektzioen beherakada antzekoa izan dela 2019an eta 2020an.

1. taula Espainiari buruzko hazkunde-aurreikuspenak, 2019an eta 2020an

Erakundea	2019 lehenago	2019 ondoren	Aldea (ehunekotan)	2020 lehenago	2020 ondoren	Aldea (ehunekotan)
Espainiako Bankua	% 2,4	% 2,0	-0,4	% 1,9	% 1,7	-0,2
FUNCAS	% 2,2	% 1,9	-0,3	% 2,0	% 1,5	-0,5
BBVA	% 2,3	% 1,9	-0,4	% 1,9	% 1,6	-0,3
NMF	% 2,1	% 2,2	+0,1	% 1,9	% 1,8	-0,1

Espainiako Bankuaren kasuan, adibidez, beheranzko berrikuspena 4 eta 2 hamarrenkoa da 2019an eta 2020an, hurrenez hurren.

2019ko aurreikuspen-zifra jaisteak 2020ko estimazioa baldintzatzen du, zeina estatistikoki beherantz baitoa, jarraian azaltzen den bezala, hiruhileko bide bererako urteko batez bestekoa txikiagoa baita.

- Ildo horretan, eta argudiatzeko bigarren bloke gisa, 2020rako espero den hiruhileko profila ia ez da aldatu.

Aurtengo maiatzean eta ekainean, erakundeek % 2,0 inguruko hazkunde-aurreikuspena egiten zuten Espainiarako 2020rako, eta kopuru hori bateragarria da batez besteko hiruhilekoko aurreapenekin (% 0,4-% 0,5). Izan ere, hiruhilekoko profil hori ia ez da aldatu udararen pasata egindako aurreikuspenak jaitsi ondoren; alabaina, hiruhilekoko aldaketa berberetarako (% 0,4tik % 0,5era), 2020ko Espainiako BPGa % 1,7-% 1,8 haziko litzateke orain, eta maila horretantxe kokatzen dira egungo aurreikuspenak.

Horregatik, eta Espainiako kasuan 2020ko berrikuspena, hein handi batean, 2019ko eragin estatistikoaren ondorio denez, ez dago hori dela-eta Nafarroakoak aldatzeko arrazoirik; izan ere, jarraian azaltzen den bezala, aurreikusitako % 2,7a betetzeko bidean daude.

- Azkenik, posible da eskualde-ekonomiak urte honetarako aurreikusitako % 2,7ko hazkunde lortzea, eta ez dago pisuzko arrazoirik 2020rako proiektatutako % 2,2a aldatzeko (2. taula).

Egia da eskualdeko egoeraren araberrako adierazle batzuk agortze-sintomak ematen hasi direla, baina orain arte, hiruhileko batetik aurrera aurrertzen ari den jardueraren leuntze- eta moderazio-parametroen barruan sartzen dira.

Joan den urriaren 31n NASTAT-Nafarroako Estatistika Institutuak Nafarroako BPGaren aurreapena zabaldu zuen, hirugarren hiruhilekoari zegokiona; BPG hori urte arteko % 2,5 hazi da. Bada, 2019ko lehen eta bigarren hiruhilekoekiko dakarren dezelerazioa bat dator urte osorako espero den % 2,7arekin; izan ere, laugarren hiruhilekoko datua jakin gabe, BPGa batez beste % 2,7 hazi da urtarriletik irailera bitartean.

Era berean, laugarren hiruhilekoan ezagututako lehen datu ekonomikoek ez dute adierazten jarduera gehiago okertu denik. Gizarte Segurantzako afiliazioak % 2,7 hazi ziren urrian, iraileko tasa bera, eta autoen ekoizpenak % 46,9 egin du gora urrian —hilabete horretako industria ekoizpenaren indizean eragina izanen duen igoera da hori—. Gainera, azaroan eta abenduan 2018ko epe berean baino ia % 14,0 auto gehiago fabrikatzea aurreikusten da, eta hori, zalantzarik gabe, hazkundearen kontrahorma baten gisakoa da azken hiruhilekoan.

2. taula 2019-2020 urteetako Nafarroako agertoki makroekonomikoa

Urteko arteko aldearen tasak (%)

	2019(p)	2020(p)
BPG erreala	2,7	2,2

(p) Aurreikuspena.

Espero dugu, beraz, 2019ko hazkunde ekonomikoak helburu den % 2,7 ingurukoa izatea Nafarroan.

2020rako, aurreikuspenari eusten zaio. Kontuan izan behar da arantzel-borrokak, brexit-ak eta Alemaniaren ahuleziak Nafarroako ekonomian izanen duten inpaktua jasotzeko, jada kuantifikatzen ari dela jardueraren hazkunde bost hamarren moteltzea 2019tik 2020ra bitartean: % 2,7tik % 2,2ra. Moderazio hori batez beste Espainiarako proiektatzen diren hiru hamarrenak baino zuhurragoa da (1. taula). Gainera, ez dirudi kanpoko narriadurak gehiagora joko duenik. Erakundeak Espainiarentzat hazkunde txikiagoa aurreikusten ari dira datorren urtean, baina beste lurralde batzuentzat, Europakoa kasu, susperraldi arin eta apala espero da 2020an, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera.

Gogoratu behar da, halaber, gure aurreikuspenak Airefiek bermatzen dituela, zeinak irailaren 6an igorritako 55/19 txostenean zuhurtzat jotzen baititu, aldagaiaren konfiantza-tartearen erdialde-

an edo behealdean daudelako, beheranzko joerak egoteko aukera barne.

Azken batean, egia bada ere Nafarroako ingurune ekonomikoa moteltzen ari dela, moderazio hori makro agertokian jasota zegoen, urtero hazkunde-tasa txikiagoak proiektatzen baitziren. Desazelerazio horren intentsitatea edo abiadura erabilitako proiektzio-parametroen eta -tartearen barruan sartzen da, diogun bezala. Era berean, azken egunotan datu ekonomiko hobeak ezagutzeko joan dira Europan, hala nola manufaktura-industriaren enpresa-konfiantza, eta aurreikuspenen kutsu apokaliptikoa murriztu egin da, eta horrek egungo gure agertoki makroari eustea indartzen du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, etxebizitzak alokatzeko Poltsaren programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitzak alokatzeko Poltsaren programari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak 10-19/PES-00127 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzuteko. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

1. Alokairu Burtsari atxikitako alokairuko etxebizitza babestuen eskatzaileen errolda espezifikorik ez dago; aitzitik, alokairuko etxebizitzen

esleipenak etxebizitza publikoen eskatzaileen errolda orokorraren arabera arautzen dira.

2. Alokairu-poltsan esleitutako etxebizitza guztiak pertsona fisiko diren jabe partikularrenak dira, 34 etxebizitza izan ezik; horietako 31 enpresa pribatuena, eta 3 toki-erakundeena (Antsoaingo Udalaren 1 eta Artikako kontzejuaren 2) dira.

Honako hau da urte bakoitzeko abenduaren 31n alokairu-poltsari atxikitako etxebizitzen zerrenda, herrika:

2018-12-31n, herriak

ALTSASU	1
ANTSOAIN	29
AGOITZ	1
ARRE (EZKABARTE)	1
ARTIKA	23
AIEGI	1
BARAÑAIN	22
BERIAIN	9
BERRIOBEITI	2

BERRIOZAR	37	IRUÑA	257
BURLATA	26	SARRIGUREN	53
CASTEJÓN	2	TAFALLA	1
CINTRUÉNIGO	1	TUTERA	11
ZIZUR TXIKIA	4	ATARRABIA	12
CORDOVILLA	2	ZIZUR NAGUSIA	19
CORELLA	6		553
EGUESIBARRA	1		
LIZARRA	8	2016-12-31n, herriak	
UHARTE	14	ANTSOAIN	27
MENDIGORRIA	2	ARRE (EZKABARTE) 1	
MUTILOA	6	ARTIKA	16
NOAIN	14	BARAÑAIN	19
ORKOIEN	18	BERIAIN	3
ORORBIA	1	BERRIOBEITI	1
IRUÑA	271	BERRIOZAR	28
ARRADA (MURILLO EL CUENDE)	1	BURLATA	21
SARRIGUREN	66	CASTEJÓN	1
TAFALLA	1	ZIZUR TXIKIA	3
TUTERA	21	LIZARRA	2
ATARRABIA	11	UHARTE	14
ZIZUR NAGUSIA	17	MUTILOA	5
	619	NOAIN	11
		ORKOIEN	14
2017-12-31n, herriak		ORORBIA	1
ALTSASU	1	IRUÑA	246
ANTSOAIN	27	SARRIGUREN	47
ARRE (EZKABARTE) 1		TUTERA	1
ARTIKA	20	ATARRABIA	11
BARAÑAIN	20	ZIZUR NAGUSIA	15
BERIAIN	5		487
BERRIOBEITI	2	2019-09-01ean, herriak	
BERRIOZAR	33	ALTSASU	1
BURLATA	24	ANTSOAIN	32
CASTEJÓN	2	AGOITZ	1
CINTRUÉNIGO	1	ARRE (EZKABARTE) 1	
ZIZUR TXIKIA	4	ARTIKA	24
CORDOVILLA	1	AIEGI	1
CORELLA	4	BARAÑAIN	23
EGUESIBARRA	1	BERIAIN	11
LIZARRA	3	BERRIOBEITI	1
UHARTE	13	BERRIOZAR	40
MUTILOA	6	BURLATA	55
NOAIN	15	CASTEJÓN	2
ORKOIEN	16	ZIAURRITZ (ODIETA) 1	
ORORBIA	1	CINTRUÉNIGO	1

ZIZUR TXIKIA	4
CORDOVILLA	2
CORELLA	6
ELIZONDO	1
LIZARRA	11
UHARTE	14
MENDIGORRIA	2
MURU-ASTERAIN (ZIZUR) 1	
MUTILOA	8
NOAIN (ELORTZIBAR) 15	
ORKOIEEN	20
IRUÑA	270
ARRADA (MURILLO EL CUENDE) 1	
SARRIGUREN	70
TAFALLA	2
TUTERA	26
VIANA	1
ATARRABIA	13
ZIZUR NAGUSIA	22
	683

3. Alokairu-burtsako etxebizitzak Nasuvinsari lagatako etxebizitzak dira, eta azken horrek hirugarren bati alokatzen dizkio. Horrenbestez, ez dago erosteko aukera duen errentamendu-modalitatearik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez..

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, 2019ko urriaren 15ean Landa Eremuko Emakumearen Eguna ospatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2019ko urriaren 15ean Landa Eremuko Emakumearen Eguna ospatzeari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak galdera egin du 2019ko urriaren 15ean Landa Eremuko Emakumearen Eguna ospatzeari buruz (10-19/PES-00128). Hona hemen Landa Garapen eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak bat egin zuen urriaren 15ean ospatu zen Landa Eremuko Emakumearen

Egunarekin, eta bertan parte hartu zuten Itziar Gómez Landa Garapen eta Ingurumeneko kontseilariak eta Eva Istúriz Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendariak, Erdialdeko Eremuko Garapen Partzuergoak eta Izarreibarko Mankomunitateak Berbinzanako Udalarekin batera antolatutako "Berdintasun Sareak Ehuntzen" jardunaldian.

Era berean, Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendariak "Landa inguruneke emakumeak, etorkizuna bultzatuz" lemapean Affamer Navarrak antolatutako topaketan parte hartu zuen. Topaketa hori urriaren 26an egin zen Larragako Kultur Etxean, eta Kultura eta Kirol kontseilaria ere bertaratu zen, Nafarroako Kirol eta Gazteriarren Institutuari 2017an egindako Kirola eta Emakumea Ekintza Planagatik saria jasotzera. Plan horrek emakumeen kirola ikusarazten lagundu du.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak 10-19/PES-00129 idatzizko galdera egin du. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

2019-2023 aldirako Bizikidetzazko eta Berdintasunezko Legegintzaldi Berritzaile eta Aurrerakoira Programa-akordioan hartutako konpromisoen artean, honako hau dago hitzez hitz: "Eskuin

muturreko taldeek edo funtzionario publikoek zio politikoengatik eginiko ekintzetako biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatu eta aplikatu, betiere biktimenganako erakundeen begiradatik abiatuta".

Ildo horretan, Nafarroako Gobernuak, legealdi honetan, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea sortuko du, foru lege horren IV. kapituluko 13-1 artikuluan ezarritakoa. Gure ustez, funtsezkoa da segurtasun juridiko osoa ematea, eta, beraz, haren osaera, antolaketa, funtzionamendua, funtzioak, kronograma, prozedura eta metodologia Konstituzio Auzitegiak ezartzen duenaren mende egonen dira, Gobernuaren Aholkularitza Juridikoak egindako alegazioei erantzunez edo konstituziokontarakotasun-errekurtsoei buruzko epai irmoaren bidez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Herritarrekiko harremanetako kontseilaria: Ana Olo Hualde

Galdera, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua egun kudeatzen ari den proiektu estrategikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua egun kudeatzen ari den proiektu estrategikoei buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak 10-19/PES-00131 galdera egin du, idatziz erantzutegoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau erantzuten dio:

Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak helburu du departamentuen arteko ekintzan zeharkakotasunaren kultura ezartzea, aukerak aztertzea eta Foru Komunitateko hainbat eskualdetan lurralde-garapen iraunkorraren esparruan ikuspegi estrategikoa duten proiektuak definitzea.

Sortu berria den arloa da, eta, horrenbestez, ez du oraindik ez egiturarik, ez ekipamendurik. Egitura organikoari buruzko Foru Dekretua joan den urriaren 30eko Gobernu Kontseiluaren bilkuran onetsi zen, eta orain arte Zuzendaritza Nagusi berriaren funtzioak eta eskumenak zehazteko lan egin da, proiektuen zerranda bat definitzen eta kudeatzen hasi aurretik. Hala ere, Pirinioetako planaren proiektu pilotuaren bultzada, eraikuntzako edo baso-biomasaren erabilerako zuraren sustapen-proiektua edo Ustiapen Sarea tokiko garapenerako tresna gisa garatzea dira Departamentuaren programan adierazitako lan-ildoetako batzuk, Nafarroako Parlamentuan irailaren 27an azaldu zirenak.

Nolanahi ere, egiturari buruzko Foru Dekretuak eduki hauek ezarri berri ditu Zuzendaritza Nagusiarentzat:

«IV. KAPITULUA. Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia

1. ATALA. Eskumenen esparru materiala eta egitura

28. artikulua. Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren eskumenen esparru materiala.

Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak foru dekretu honetan ezarritako eskudantziak izanen ditu, honako arlo hauetan:

a) Politika publikoak planifikatu eta garatzea lurralde estrategia jasangarriaren arloan.

b) Lurraldea ardazten duten, aurrerapena ematen duten, erreferente moduan jartzen duten eta haren baliabideen kudeaketa jasangarria egiten duten proiektu estrategikoak sustatzea, zeharkakotasunez eta beste departamentu eta erakunde batzuekin koordinatuz.

c) Proiektu estrategikoei laguntza eman eta haien jarraipena egitea.

d) Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziaren jarduera bultzatzea.

e) Proiektu estrategikoetan parte hartzeko prozesuak ezarri eta modu eraginkorrean ezagutzera ematea.

29. artikulua. Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren egitura.

Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak Proiektu Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzua du egituran.

2. ATALA. Proiektu Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzua

30. artikulua. Proiektu Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzuaren eskumenen esparru materiala.

Proiektu Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzuak foru dekretu honetan ezarritako eginkizunak izanen ditu, betiere honako hauekin loturik: politika publikoak aztertu eta planifikatzea, lurralde estrategia jasangarrietan; lurraldeko behar eta errealitateen azterlanak, ikerlanak eta lurraldearen proiektu estrategikoen garapen eta kudeaketa, parte-hartze eta komunikazio proze-

suen jarraipena, kontrola eta koordinazioa, baita bere jardueraren eremu materialean agintzen zaizkionak ere.

31. artikulua. Proiektu Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzuaren egitura.

Proiektu Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzuak atal hauek ditu bere egituran:

a) Proiektu Estrategikoen Azterketa eta Plangintzarako Atala.

b) Proiektu Estrategikoen Kudeaketa eta Koordinaziorako Atala.

c) Jasangarritasunaren eta Informazioaren Atala.

32. artikulua. Proiektu Estrategikoen Azterketa eta Plangintzarako Atalaren eskumenen esparru materiala.

Proiektu Estrategikoen Azterketa eta Plangintzarako Atalak foru dekretu honetan aurreikusitako eskudantziak izanen ditu proiektu estrategikoen azterketa, analisi eta plangintzaren arloan eta, zehazki, honako hauek:

a) Lurraldearen ezagutzaren sistema integratuaren definizioa eta garapena.

b) Lurralde estrategia jasangarria garatzeko proiektu estrategikoen definizioa eta plangintza.

c) Datu administratiboetan sartzeko eta datu horiek lurraldearen ezagutza-sisteman integrazeko koordinazioaren zuzendaritza.

d) Ezagutza garatuaren sistematik abiatuak, simulazio- eta predikzio-tresnak sartzea.

e) Plan eragileen eta ezarri beharreko jarduketaren definizioa.

f) Zehaztutako adierazleak garatzea, estrategiari zein ezarri beharreko proiektu estrategikoei jarraipena egiteko.

g) Lurraldearen gaineko informazioa erauzi eta haren analitika garatzea, lurraldea ezagutzeko tresna garatua oinarritzat harturik.

h) Beharrak edo gabeziak hautemateko analitika prediktibo bat garatzea.

i) Garatu nahi diren planak eta programak egiteko beharrezkoa den inbertsioa planifikatzea.

j) Azterlanak egitea herritarren eta enpresen beharren edo lurralde-ikuspegia osatzen duten sektore arteko gabezien gainean.

k) Bere eskumenen esparruaren gaineko azterlanak hedatzea.

l) Azterketak egitea ekonomia berriko prozesu edo teknologietan berrikuntzak egiteko aukeren eta lurraldean izanen duten aplikagarritasunaren gainean.

m) Lurraldeko proiektu estrategikoak ebaluatu eta haien jarraipena egitea.

n) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkieten beste batzuk, edo bere jardueraren eremuan agintzen zaizkionak.

33. artikulua. Proiektu Estrategikoen Kudeaketa eta Koordinaziorako Atalaren eskumenen esparru materiala.

Proiektu Estrategikoen Kudeaketa eta Koordinaziorako Atalak foru dekretu honetan aurreikusitako eskudantziak izanen ditu proiektu estrategikoen kudeaketa eta koordinazioaren arloan eta, zehazki, honako hauek:

a) Lurralde estrategia jasangarria bultzatzeko zehaztu diren proiektu estrategikoen kudeaketa.

b) Lurraldean lanean ari diren eragile eta erakundeekin elkarlanean aritzea.

c) Egiten ari diren proiektu estrategikoen jarraipena egin eta haiek kontrolatzea.

d) Zehaztutako proiektuak garatu eta ezartzea (proiektu horiek ekitate handiagoa ematen dute zerbitzuak, azpiegiturak eta ezagutza eskuratzeko).

e) Sektore eta administrazio arteko lankidetzak hitzarmenak garatzea, eta haiek abian jarriko direla bermatzea.

f) Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluari argibideak ematea lurralde politikaren arloan ezarritako jarduketak-ildoez.

g) Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluak lurralde strategiaren arloan egindako gomendioak eta txostenak txertatzea.

h) Zeharkako izaera duten gaiak departamentuko gainerako unitateekin koordinatzea.

i) Parte-hartze prozesuak kudeatzea lurralde garapen jasangarriaren arloan egin beharreko jarduketetan ari diren erakunde eta eragile guztiekin batera.

j) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkieten beste batzuk, edo bere jardueraren eremuan agintzen zaizkionak.

34. artikulua. Jasangarritasunaren eta Informazioaren Atalaren eskumenen esparru materiala.

Jasangarritasunaren eta Informazioaren Atalak foru dekretu honetan aurreikusitako eskudantziak

izanen ditu lurraldeko proiektu estrategikoen jasangarritasunaren eta komunikazioaren arloan eta, zehazki, honako hauek:

a) Jasangarritasun printzipioak proiektu estrategikoetan sartzen direla bermatzea.

b) Jasangarritasunaren arloan lurralde estrategia bultzatzeko definitutako proiektu estrategikoak garatu, zuzendu eta burutzea.

c) Jasangarritasunaren arloan lurraldeko eragile guztien erantzukidetasun soziala bultzatzea.

d) Jasangarritasunaren arloan egiten ari diren proiektu estrategikoen jarraipena egin eta haiek kontrolatzea.

e) Lurralde garapen jasangarriko formulak garatzen laguntzea.

f) Lurralde garapen jasangarriko formula definituak kudeatu eta ezartzea.

g) Jasangarritasunaren arloan aholku eta laguntza teknikoak ematea lurraldearen garapenerako.

h) Lurralde aldetik jasangarriak diren proiektu estrategikoak komunikatzea.

i) Proiektu estrategikoetako sare sozialen eta web orriaren kudeaketa.

j) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkioten beste batzuk, edo bere jardueraren eremuan agintzen zaizkionak».

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 5ean

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan egiturazko orduak egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan egiturazko orduak egiteari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak

idatzizko eskaera bat egin du (PES-00135), zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari, informazioa nahi baitu Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan egiturazko orduak egiteari buruz. Nafarroako Gobernuak Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak Barne Zuzendaritza Nagusiaren txostena igortzen dizu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 20an

Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

1. Zerbitzuko langileek egiturazko zenbat ordu egin dituzte erreskate teknikorako taldea sortu zenetik 2019ko urriaren 15era bitarte?

Erreskate teknikorako taldea 2019ko maiatzaren 1ean hasi zen lanean.

ETTak hasieratik egin dituen aparteko orduak

ETTak hasieratik egin dituen aparteko orduak	
2019-05-01etik 2019-11-04ra	
Ordu-mota	Ordu-kopurua
Aparteko orduak	5.140,30
Jaiegunetako aparteko orduak	5.224,00
	10.364,30

2. Zerbitzuko langileek egiturazko zenbat ordu egin dituzte azken anbulantzia erosi zenetik 2019ko urriaren 15era bitarte?

Ukertuta Erdialdeko Iruñea Parkeko anbulantzia-zerbitzuaren hasierari buruz ari zarela, 2016ko urtarrilaren 1etik 2019ko azaroaren 4ra bitarteko aldia zehazten dute datuek.

Aparteko orduak Trinitarioetako anbulantzia zerbitzua hasi zenetik	
2016-06-01etik 2019-11-04ra	
Ordu-mota	Ordu-kopurua
Aparteko orduak	11.503,02
Jaiegunetako aparteko orduak	11.873,17
Egiturazko orduak, 51/2016 Foru Dekretua	13.674,83
	37.051,02

3. Zerbitzuko langileek zenbat ordu egin dituzte 2016tik 2019ra bitarte parkeak irekita mantentzeko behar diren gutxienekoak betetzeko? Zer parketan egin behar izan ziren ordu horiek?

Aurreko atalean aipatutako orduak, zeren eta bai aparteko orduak, bai jaiegunetako aparteko orduak, bai egiturazko orduak gutxienekoak betetzeko egiten baitira, kasu jakin batzuetan izan ezik (ez da % 1era iristen), zeinetan erreklutamenduen bidez egiten baitira prebentziorako erretinak egiteko.

Bestalde, ezin dugu zehaztu zein parketan ari ziren aparteko orduak egiten, aplikazio informatikoen suhiltzaileen informazioa baino ez digutela ematen. Hau da, egindako aparteko orduak norberaren lanpostuari lotuta daude, eta, beraz, norberaren destinoko parkeari; beraz, ezin dugu ikusi nor zein parketara mobilizatu den.

4. 2016tik gaur bitarte zenbat egunetan ezin izan dira gutxienekoak bete? Zer parketan gertatu zen hori?

Aurreko atalean azaldu dudana bezala, Zerbitzua ez dago teknologikoki prestatuta horri buruzko informazio zehatza emateko, eta Langileen Atalean eta Unitatean ez du behar adina langilerik hori gauzatzeko.

5. Zerbitzuko langileek egiturazko zenbat ordu egin dituzte Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuari atxikitako langileen egiturazko orduak arautzen dituen 51/2016 Foru Dekretuaren babesean dekretua indarrean sartu zenetik 2019ko urriaren 15era bitarte?

2016-08-05ean indarrean sartu zenetik 2018-12-31ra arte 13.674,83 egiturazko ordu egin dira.

6. Zenbat suhiltzailek egin dituzte egiturazko orduak 51/2016 Foru Dekretuaren babesean?

223 pertsonak (kaboak eta suhiltzaileak) hartu dute parte.

Iruñean, 2019ko azaroaren 8an

Barneko zuzendari nagusia: María Amparo López Antelo

Galdera, Nafarroako herrietan helduentzako euskara-eskolak ematea baimentze aldera ezarritako prozedurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako herrietan helduentzako euskara-eskolak ematea baimentze aldera ezarritako prozedurari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak 10-19-PES-00136 galdera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Honako hau da gaiari buruzko araudia:

– 19/2002 FORU LEGEA, ekainaren 21ekoa, helduen hezkuntza arautzen duena (2002ko ekainaren 28ko 78. NAOn argitaratua).

– 61/2009 FORU DEKRETUA, uztailaren 20koa, helduen oinarrizko hezkuntza arautu eta ikasketa horien egitura eta curriculum auzartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean (2009ko irailaren 4ko 109. NAOn argitaratua).

Araudi indardunari erreparatuta, helduen hezkuntza honela dago egituratuta:

Lehentasunezko prestakuntza-jarduerak: Helduen hezkuntza arautzen duen 19/2002 Foru Legearen 5. artikuluko a), f) eta g) letretan adierazitako programekin zerikusia dutenak. Oro har, lauhileko bakoitzean planteatzen duten eskain-

tzaren ordu-kargaren % 80, gutxienez, lehentasunezko jarduerari dagokie.

Prestakuntza pertsonaleko jarduerak: Helduen hezkuntza arautzen duen 19/2002 Foru Legearen 5. artikuluko c), d), e), h) eta i) letretan adierazitako programekin lotutakoak:

Lehentasunezko prestakuntza-jarduerak eta prestakuntza pertsonaleko jarduerak Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 16ko 447/2019 EBAZPENAREN bidez egin dira. Ebazpen horren bidez, 2019-2020 ikasturterako jarraibideak onesten dira honako hauek arautzeko: batetik, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta ikasgelen antolaketa eta funtzionamendua, eta bestetik, ikastetxe publiko baimenduetan Helduen Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak emateko modua, hala bertaratzeko modalitatean nola urrutikoan. (2019ko abuztuaren 9ko 155. NAOn argitaratua).

1. gaia:

HOHlek artatzen dituzten pertsona helduen prestakuntza-beharrak jasotzen dituzte.

Ikasketak Antolatzeko Atalak, HOHak azken hiruhilekoan egindako eskaintza kontuan hartuta, proposamena egin zion Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuari, hurrengo ikasturteko funtzionamendu-plantilla prestatzeko.

Funtzionamenduko plantilla egin ondoren beharizan berriak hautematen badira, eskari horri erantzun ahal izanen zaio plantillaren barne-doikuntzeekin eta lehentasunezko prestakuntza-jarduerari erantzuteari utzi gabe, edo baliabide berriez hornituta, halakorik badago.

2. gaia:

Tuterako HOHlan lehen lauhilekoko matrikulak egin ondoren, Cascante, Castejon eta Tuteran euskara irakasteko, honako hauek dira taldeak:

Herria	Taldeak	Maila	Orduetgia
Cascante	1. taldea: 23 ikasle	A0	1,5 ordu
	2. taldea: 15 ikasle	A0.1 A0.2	1,5 ordu
Castejón	1. taldea: 22 ikasle	A0.1	1,5 ordu
	2. taldea: 23 ikasle	A0.1	1,5 ordu
Tutera	1. taldea: 22 ikasle	A0.1	1,5 ordu
	2. taldea: 19 ikasle	A0.1	1,5 ordu
	3. taldea: 18 ikasle	A0.1 A0.2	1,5 ordu
Orduak, guztira			10,5 ordu

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

Galdera, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriaren testu bateginarekin foru lege proiektu bat aurkezteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriaren testu bateginarekin foru lege proiektu bat aurkezteari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak PES-00139 galdera idatzia aurkeztu du, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriaren testu bateginari buruz.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren edo Foru Berriaren testu bategina onesten duen Foru Lege proiektuari buruz egiten dizkidazun galderei dagokienez, honako hau da erantzuna:

1.a Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2019ko apirilaren 16an.

Legearen azken xedapenetako hirugarrenak Nafarroako Gobernuari agintzen zion honako hau egiteko: “argitaratzen denetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari foru lege proiektu bat igorri beharko dio, zeinaren bidez arau-gorputz bakarrean bilduko baitira, testu bategin modura, (...) Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriaren dauden lege-xedapen indardunak”.

Beraz, Nafarroako Parlamentuaren agindua betetzeko epea 2019ko apirilaren 16an hasi zen, eta urte bereko urriaren 16an amaitu.

Ni neu Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren abuztuaren 6ko 23/2019 Foru Dekretuaren bidez izendatu ninduten kontseilari.

Zure galdera idatzian ongi adierazten duzunez, Departamentuko aurreko arduradunak gure esku-jarri zuen Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren

Konpilazioaren edo Foru Berriaren testuategina onesten duen foru legearen proiektuaren testua.

Testu hori aurreko departamentuko arduradunari eman zion erredaktoreak, 2019ko ekainaren 10ean.

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak testua aztertzei ekin zion, zuzenketa txikiak eginez, eta Zuzendaritza Nagusi bereko Gobernuaren Idazkaritzaren eta Araugintzaren Zerbitzura bidali zuen, lege-teknika egokiaren ikuspegitik berrikuspena egin zedin.

Paraleloki, Lehendakaritzako, Berdintasuneko eta Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren azaroaren 6ko 168/2019 Foru Agindua onetsi zen, zeinaren bidez hasiera eman baitzitzaion Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren edo Foru Berriaren testuategina onesteko foru legearen aurreproiektua egiteko prozedurari.

2019ko azaroaren 12an, bilera bat egin zuten Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak, Gobernuaren Idazkaritzaren eta Araugintzaren Zerbitzuko zuzendariak eta foru legearen proiektuaren erredaktoreak. Bilera horretan, oniritzia eman zitzaion Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak planteatutako aldaketekin egindako testu bati.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Aholku Batzordearen bilera baterako deia egin du 2019ko azaroaren 25erako, organo horrek foru legearen aurreproiektuari buruzko txostena egin dezan. Txosten hori beharrezkoa da aipatu kontseilua sortu eta arautu zuen otsailaren 6ko 9/2006 Foru Dekretuaren arabera.

Ondoren, foru lege mailako arauen prestaketari buruzko araudian aurreikusitako izapide eta txosten guztiekin eginen dira. Laburbilduz, honako hauek dira:

- Jendaurrean jartzea (Gobernu Irekiaren webgunean): 15 egun baliodun.
- Elkargoei, unibertsitatei eta beste entitate batzuei entzunaldia ematea.
- Ekarpenei erantzuteko dokumentua egitea, hala badagokio, proiektuaren oroitidazkia (justifi-

kazioa, araudia, oroitidazki ekonomikoa eta antolamendukoa) eta genero-eraginari buruzko txostena.

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluaren txostena.

– Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluaren txostena.

– Nafarroako Adingabearen Kontseiluaren txostena.

– Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren txostena.

– Nafarroako Gobernuko gainerako departamentuei egindako kontsulta.

– Txosten juridikoa.

– Irisgarritasunari buruzko txostena.

– Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena.

– Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren txostena.

– Nafarroako Gobernuaren erabakia, proiektua onetsi eta Nafarroako Parlamentura bidaltzei buruzkoa.

Horrenbestez, idazkian adierazten duzunez, testuateginaren foru lege proiektua Nafarroako Parlamentuari aurkezteko 21/2019 Foru Legean aurreikusitako epea ez da bete, eta ez-betetze hori gertatu da idatzitako testua berrikusi behar izan delako eta izapidetze osoa hasi behar izan delako, hori guztia lehen aipatu ditudan alderdiak kontuan hartuta: gobernu-talde berri honen karguhartzearen datak eta Nafarroako Parlamentuak emandako epea.

2. Departamentu honen nahia da foru lege proiektua Nafarroako Parlamentuari aurkeztea 2020ko urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran.

Izapidetzearen alderdien eta epeen berri berriki eman nion Nafarroako Parlamentuari.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía